

Julia Fernández eta Marisol Goikoetxea, ASPEGI (Gipuzkoako Profesional eta Enpresari Elkarteak)

“Emakume protagonistak ekintzailetza-prozesuan”

2008ko irailaren 1a

“XXI. MENDEAK EMAKUME EKINTZAILEEN LORPENAK IKUSGAI BIHURTZEKO MENDEA IZAN BEHAR DU”

Julia Fernándezek eta Marisol Goikoetxeak ASPEGI (Gipuzkoako Profesional eta Enpresari Elkarteak) elkartearen historia laburki azalduz hasi zuten beren hitzaldia. ASPEGIk hamarkada bat daroma martxan eta bere helburu nagusia, ekonomia-, gizarte- eta lan-alorrean, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasun erreala lortzea da.

Hitzaurrearen ostean, hizlariak emakume ekintzaileen errealitatea Euskal Herrian deskribatu zuten eta ondorio gisa, emakume ekintzaileak beren helburuak lortzeko ezaugarri zehatz batzuk izan behar dituztela adierazi zuten. Ezaugarri horien artean, kudeaketan sormena eta berrikuntza sustatzea, pertsona enpresa-jardueraren erdian jartzea eta, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren orekarako elementu gisa, familia eta lana adiskidetzeko bideak ezartzea aipatu zituzten.

“Garrantzitsua da emakume ekintzaileak sareak erabiltzen hastea indarra lortu eta ikusgai bihurtzeko tresna gisa”

Hizlariarentzat, Cristina Garmendia da helburu garaienak lortu dituen emakume ekintzailearen adibide, gaur egun Zientzia eta Berrikuntza ministro izateaz gain, bere gain hartu izan baitu hainbat enpresa-proiekturen ekimena. Nola Julia Fernándezek, hala Marisol Goikoetxeak, ikusgai egiteko momentua iritsi dela adierazi zuten. “XXI. mendeko berdintasunaren mendea izan behar du, (emakume ekintzaileak) lortutako arrakastak ikusgai egin behar dira eta gizartearen pertzepzioan aldaketak egitearen aldeko apostua egin behar da. Ildo horretan, elementu garrantzitsuetako bat emakume ekintzaileak harreman-sareak indarra lortu eta ikusgai bihurtzeko tresna gisa erabiltzen hastea da”. Hizlariak, historian zehar beren izaera eta indar ekintzailea erakutsi duten zenbait emakume ekintzailearen adibideak azaldu zituzten. Hatshepsut, duela 3.000 urte Egiptoko Inperioan faraoi izendatu zuten lehen emakumetik hasi eta Carolina Herrera enpresaburura arte, besteak beste, Catalina de Erauso edo Madame Curie-ren lorpenen hainbat xehetasun azaldu zituzten.